

ITXAROPEN AHAZTUA EZ DA GALDUA

Maitekoen duana
bidetik desagertzean,
lasterka atzera
dena jo nahi duanean.
Hire esku kamutsa
iraganean sartzean,
ur ustel hutsala
jasotzerakoan...
Barne erraietan
hago gar betean.

Ihesean hoanean,
itxaropen ahaztuari
begiak zabaldu,
barne-sua
itzaltzen hasi arren.
Zeru aske horretan,
amestutakoan
hesiek lotuko baihaute.

Hire begi ahul
urtsu haietan trabatuz,
hats bakar bat ere
ezin askatuz.
Itxaropen nahia ezin baztertuz,
bihotza ezinean,
begi galduak nagusituz...
Barne erraietan
hago gar betean.

Ihesean hoanean
 itxaropen ahaztuari
 begiak zabaldu,
 barne-sua
 itzaltzen hasi arren.
 Zeru aske horretan,
 amestutakoan,
 hesiek lotuko baihaute.

Amildegi ertzean
 hi heu ikustean,
 itxaropen galdua
 berpiztu asmotan,
 amildegiko miztoen
 hitz gozoak aditzean,
 zulorantz erakartzen
 hautenean...
 Barne erraietan
 hago gar betean.

Ihesean hoanean
 itxaropen ahaztuari
 begiak zabaldu,
 barne-sua
 itzaltzen hasi arren.
 Zeru aske horretan,
 amestutakoan,
 hesiek lotuko baihaute.

Baina ez al dira soilik
 itxaropen ahaztuak,
 haizeak arrotzen baititu
 joandako garaien hautsak.
 Geroak zabalik,
 preso iraganak.

Baina patua ez du
idazten iraganak,
iragan gainean
idazten baitu orainak.
Barne erraietan
hago gar betean.

Etxahun Aurkenerena Arbelaitz
Urruña, 2007ko abenduaren 7a.